



TXIKITTO!

2022ko otsaila 206. zenbakia



HERRIKO JAI ETA OHITURAK GOGOAN

AURKIBIDEA

TXISTEAK	3	DENBORAPASAK.....	11-12
IKASLEEKIN.....	4-5	LEHIAKETA.....	13
BERRIKETAN		ZER IRAKURRI	14
IKASTETXEETAKO.....	6-7	BITXIKERIAK	
BERRIAK		IPUINA.....	15
AITXITXA-AMAMEKIN..	8-9	ZU BAI MARGOLARI...	16
BERBETAN			
NI BAI ARTISTA	10		



Argitaratzailea
“...eta kitto!” Euskara Elkarteak
Urkizu, 11 - solairuartera.
20600 Eibar
Tel: 943 206776

Erredakzio kontseilua
Maidar Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak.

Administrazioa
Marisol Uriarte

Erredakzioa
Maidar Aranberri eta
Ekhi Belar

Maketazioa
Ana Aizpurua

Ikus-entzunezkoak
Yanire Sagredo

Azaleko argazkia
J.A. Mogel Ikastola

Copyright-a
Txikitto!

Lege-gordailua
SS-1111/96





- Zein da munduko animaliarik zaharrena?
- Panda-hartza... Zuri-beltzean dagoelako!



- Zer egiten du Bic boligrafo batek leihotik erortzerakoan?
- Aerobic!

Bi arrainen arteko elkarrizketa:

- Badakizu bi segundoko memoria besterik ez dugula?
- Zer?
- Zer, zertaz?



Maraka eta txirula hizketan:

- Musika jotzen dugun bakoitzean sekulako buruko minez amaitzen dut!
- Ez zaitetz hainbeste kexatu! Nirea okerragoa da! Ipurdia babaz beteta dudalarik amaitzen dut!

Jaimito eskolara iritsi zen negarrez, eta hau esan zion andereñori:

- Andereño, lapurtu egin didate.
- Ai ama, eta zer lapurtu dizute?
- Etxekolanak.



Jaimito medikuan dago eta esan dio:

- Nire puzkerrek ez dute usaintzen.
- Eta medikuak:
- Hori oso larria da, ebakuntza egin beharko dizugu.
 - Ipurdian? -Jaimitok.
 - Ez, ez, sudurrean!



Nolakoak dira gure herriko jaiak?



BIDEOA



J.A. Mogleko ikasleek herriko jaien inguruan egin digute berba. Zeintzuk dira herriko jaien jatorriak? Nola ospatzen dira? Noiz? Nolako tradizioa dago jaien atzetik? Gauza interesgarri asko kontatu dizkigute ikasleek.

UNAI ZABALA,
11 URTE



San Juan jaiei buruz egingo dizuet berba. Askok gustatzen zaizkit, udan direlako eta jaiekin batera oporrak hasten direlako. Barrakak jartzen dituzte eta lagunekin joaten naiz bertan ibiltzera. San Juan egunaren bezperan, kuadrillak 12:00etan elkartzen dira eta Untzagara joaten dira dultzaineroei ongi-etorria ematera eta txupinazora. Jendeak kuadrillan bazkaltzen du elkarte gastronomikoetan. Gero, San Juan Sua egitea eta txapliguak botatzea da ohitura.

JULEN LOPEZ,
11 URTE



Nire jairik gustukoenak inauteriak dira. Aurten otsailaren 24an hasiko eta martxoaren 1ean amaituko dira. Desfileak, jai-giroa, mozorroak... egoten dira inauterietan. Lagunekin playbacka egitea, mozorrotzea eta koloretako sprayarekin jolastea gustatzen zait. Mota askotako mozorroak daude: piratak, pailazoak, kirolekoak... Ikastolan euskal inauteriak ospatzen ditugu eta kotilungorriak, kaskarotak... ikusi daitezke bertan. Aurten bolantaz jantziko gara. Eibarren aratoste esaten zaie inauteriei. Aratoste berba 'haragi' eta 'uste' hitzek osatzen dute.



PELLO ARANZETA,
11 URTE

Gustuko dudan festa Santa Ageda da. Otsailaren 5ean ospatzen da, baina bezperan kuadrillak elkartu egiten dira koplak zaharrak elkarrekin abesteko. Santa Ageda Italian jaio zen 235. urtean. Enperadore batek berarekin ezkondu nahi zuen, baina berak ez. Orduan, kartzelan sartu eta torturatu egin zuten (adibidez, bularra moztu zioten) hil arte. Aurten, Iturburu inguruko baserrietara joan gara koplak abestera. Askok gustatzen zait hori, lurra makilarekin kolpatzea ondo dago! Santa Ageda, aratosteak eta inguruko festak gauza batean bat etortzen dira: natura esnatzeko ospatzen dira. Natura negua igarotzen dagoenez, jai hauen bitartez esnatzen saiatzen dira.



OLATZ CALDERON,
12 URTE

Niri Arrateko jaiak gustatzen zaizkit gehien. Irailaren 8an ospatzen dira eta Arratera oinez igotzea da ohitura, baina batzuk autobusez edo kotxez joaten dira. Hori bai, oinez doazenek saria jasotzen dute bidean: txorizo pintxoak eta salda. Arrate egunean mojek eta baserriarrek janaria saltzen dute (pastelak, magdalenak, roskilak...). Gainera, meza berezia egiten da Arrateko elizan eta kandelak pizten dira. Bezperan kontzertuak egiten dira eta erromeria ez da falta. Euskal Dantzak, herri-kirolak eta tiro-pitxoiko txapelketak ere egiten dira.



HAIZEA
MURUAMENDIARAZ,
11 URTE

San Andres jaiak dira nire aukera. Azaroaren 30ean ospatzen dira eta jendea baserriarrez jantzen da, bai nagusiak bai umeak. Nik bi egunetan ospatzen ditut jaiak. Azaroaren 29an ikastolan taloak egiten ditugu txistorrarekin jateko. 30ean, ostera, lagunekin kalean ospatzen dut. Kezkak Untzagan egiten du dantza, besteak beste. Azokaren jatorria XIX. mendetik dator. Lehen, baserriarrek errentan bizi zirenez, herrira jaisten ziren eta euren produktuak saltzen zituzten dirua irabazteko eta errenta ordaintzeko.



ENERITZ
GARITAONANDIA,
12 URTE

Gehien gustatzen zaidan jaiak San Blas eguna da. Otsailaren 3an ospatzen da eta lepoan haria eramaten da bederatzi egunez. Bederatzi egunak pasa ondoren, haria kendu eta erre egiten da gaixotasunak uxa ditzan. San Blas III. mendeko kristau martiri bat izan zen eta Eibarren, Elgoibarren, Sorluzen, Tolosan eta Euskal Herriko beste zenbait tokitan opilak egiteko tradizio handia dago. Etxeetan egiten dira opil batzuk eta elizara eramaten dira bedeinkatzera. Sanblasak asko gustatzen zaizkit. Etxean ez dugu sanblasak egiteko ohiturarik, baina iaz hasi ginen opilak egiten, anis dezenterekin eta txokolatzeko 'San Blas' berbak idatzita.



URKIZU

3. eta 4. mailakoek txangoa egin zuten Urkiolara. Hotz handia egiten bazuen ere ederki ibili ziren. Gabon ostean “Hamaiketako osasuntsuak” kanpaina martxan jarri genuen gure eskolan eta, horrekin lotuta, plastikoaren erabilera murriztearen aldeko “Plastiko zoparik ez” kanpaina. Oso pozik gaude lortzen ari garan emaitzekin, ikasleak hamaiketako osasuntsuak ekartzen ari direlako egunero: fruta, ogitarteko txikiak eta fruitu lehorrak, adibidez.



ARRATEKO ANDRA MARI



Otsailaren 4an, makilak hartu eta eskolako patioan Santa Ageda koplak abestu genituen. Emakume zientzialarien eguna ere gogoratu genuen, emakumeek zientzia arloan duten garrantzia landuz. Aratosteak ere badatoz! Eskolako patioan mozorrotu eta dantzan egingo dugu. Primeran pasatuko dugu. Denetik izango da eskolan, animaliak, piratak, sorginak, poliziak... 2. mailako Super Akeak, Akeren bisita izan ondoren, hor ari dira bete behar dituzten misioak behar bezala betetzen.

SAN ANDRES

Joan den otsailaren 4an, gure ohiturei eusteko asmoz, 5. eta 6. mailako neska-mutilek Santa Ageda koplak abestu zituzten. Aurten ere ezin izan gara kalez kale abesten ibili, eta horregatik eskolako jolastokian abestu ditugu. Hala eta guztiz ere, primerako eguna pasa genuen.





LA SALLE

Hilabete honetan ekintza desberdinak izan ditugu eskolan. Proiektu berriekin hasteaz gain, bakeraren astea ere ospatu dugu. Aste osoan zehar balioak eta gure arteko harremanak sendotu genituen, lainoak eta ortzadarrak kolorez apainduz eta "Tuti mai nga iwi" abestiaren erritmo zoragarria dantzatzuz. Dantzatu eta abestu bakarrik ez dugu egin, jan ere bai. San blas egunean opil goxoak dastatu genituen, Ismael apaiza gelaz gela pasa ondoren San blasak bedeinkatuz.



ALDATZE

Aldatzeko LH 1., 2. eta 3. mailakoak Coliseora joan ziren "Lur eta Amets" filma ikustera. Primeran pasatu zuten eta Euskal Herria historian zehar ezagutzeko aukera paregabea izan zuten! Filmean aintzinako garai desberdinetara bidaiatzen dute, abentura mordoa biziz eta Euskal Herria nolakoa zen ezagutzuz.

J. A. MOGEL

Otsailaren 3an, San Blas egunez, 1. zikloko ikasleak, gozogile bihurtu ziren eta izugarrizko San Blas opil goxoak prestatu zituzten. Eta hurrengo egunean, otsailak 4, Santa Ageda bezperan, 6. mailakoek, makilak hartu eta ama Lurra esnatzera joan ziren. Iturburutik, Amazabalegi Goikora joan eta bertan abestu ondoren beheko baserrietan abestu zuten.



AMAÑA

Zirkoa dator Amaña ikastetxera!! Aurten, otsailaren 25ean, Amaña eskola zirko bihurtuko da ikasleok horrela erabaki dugulako. Guretzat bakarrik antolatuko dugu jaia, pandemia-gatik ez dakigulako gurasoek eta lagunek parte hartu ahalko duten. Eskolako patioan zabalduko dugu zirko-karpa eta gelaka parte hartuko dugu segurtasun-neurriak zainduz. Zirko berezi honetan magoak, pailazoak, pierrotak, mimoak... egongo dira. Primeran pasatuko dugu!



Juliana eta Naroba: «Gizon eta emakumeen arteko berdintasunean asko aurreratu dugu, baina bide luzea gelditzen zaigu oraindik»

Pozarren agertu zaizkigu ... eta kitto! Euskara Elkartearen egoitzan Naroba eta Juliana, amama-bilobak. 9 urte ditu Narobak eta Arrateko Andra Mari ikastetxean ikasten dihardu LH4. mailan. Galderak txintxo-txintxo prestatu ditu eta elkarrizketa polita izan dute bien artean. Hemen duzue emaitza.

- Kaixo amama, noiz eta non jaio zinen?

Madriren, 1951ko otsailaren 2an.

- Zer kontatuko diguzu zure eskola-garaiari buruz?

Ba, oso ondo pasatzen genuela, baina lana ere asko egiten genuen. Lehenengo txikien gelan hasten ginen, eta batuketak eta kenketak egiten eta idazten eta irakurtzen ikasten genuenean nagusien gelara pasatzen ginen, goiko pisura.

- Asko zineten eskolan?

Pila bat, ehun ume inguru eta irakasle bakarra. Gero mutilak zeuden, haiek maisuarekin. Gure irakaslea txikia zen, oso txikia, metro eta erdi izango zuen, baina ikasle guztiak firme jartzen zituen (barreak). Arratsaldean neskek kostura egiten genuen, josten ikasi, eta mutilek, berriz, eskulanak.

- Oporretara joaten zineten?

Etxekoekin ez, ez baikenuen dirurik horretarako. Baina igandetan mezetara joaten ginenean



kartillatxo bat betetzen ziguten eta kartilla osoa beteta izanez gero Galiziarra joaten ginen, doan, mojek han zuten eraikin batera.

- Goiz hasi zinen lanean?

Gaur egungoarekin alderatuta oso goiz. 15 urterekin, pentsa! Idazkari eta kontabilitateko titulua atera nuen baina gazteegia nintzela esaten zidaten. Azkenean lanpostua lortu nuen eta han egon nintzen lanean idazkari, ezkondu nintzen arte.



Juli ahizpa nagusiarekin.



Lehengusuarekin dantzan.

- Ezkondu eta lana laga?

Bai, lehen horrela zen. Ezkondu eta Eibarrera etorri nintzen Madriletik, zure aitxitxak hemen egiten zuen lan-eta.

- Eta zer iruditu zitzaizun Eibar orain dela ia 50 urte?

Madrilekin konparatuta herri txikia, baina gustatu zitzaidan. Hasieran gogorra egin zitzaidan, ez bainuen inor ezagutzen, baina pixkanaka lagunak egiten joan nintzen.

- Eta euskararekin nola konpondu zinen?

Hasieran gaizki, ez nuen piperrik ere ulertzen. Zure amatxok zortzi urte zituenean lagun batek esan zidan amatxoentzako euskara-klaseak antolatu zituztela eta han joan nintzen ni, poz-pozik. Oinarrizko gauzak ikasi genituen, jolasen bitartez, eta han ere oso oso ondo pasatu nuen.

"Amatxoentzako antolatu zituzten euskera-klaseetara gustura joaten nintzen"

- Zein da izan da zure ustez asmakizunik onena?

Duda barik, lanbasa (fregona) eta labadora. Txikia nintzenean goizeko bostetan joaten nintzen askotan amari laguntzera, eskailerak garbitzera. Belauniko garbitzen genituen, zepillo batekin, eta oso gogorra zen. Orduan, imajinatuko duzun moduan, lanbasa oso asmakizun inportantea izan zen nere bizitzan. Eta labadora ere bai, eskuz garbitu izan ditut arropak eta badakit zein gogorra den.

- Emakume eta gizonezkoen arteko berdintasunean asko aurreratu dugula uste duzu?

Zeozertxo bai, zorionez, baina oraindik bide luzea dugu egiteko. Etxean ikusi dut nik hori, zure aitxitxak, amatxok eta osabak, egia esan, ez zuten gauza handirik egiten. Juliiii ekarri hau! Juliiii ekarri bestea... .

- Zertan aldatu da Eibar urte hauetan?

Lehen zegoen ambientea batez ere. Lehen beste bizi bat zuen herriak, bazkari eta afari gehiago, dantzaldiak... Eta elkartasunean ere galdu egin dugula pentsatzen dut. Lehen peora osoko atek zabalik zeuden eta eskuzabalagoak ginen oro har.



Eguzki birziklatu dotorea

MATERIALA:

- Birziklatutako CD bat
- Koloretako papera
- Artaziak
- Erregela
- Arkatza eta errotulagailua
- Konpasa
- Itsasgarria
- Plastikozko begitxoak



NOLA EGIN:

- 1.- Koloretako paper orri bat erabili eguzkiaren izpiak egiteko. Erregelaren laguntzarekin egin marra simetrikoak eta moztu. Hainbat tira irtengo zaizkizue. Guk laranja erabili dugu baina horia edo beste kolore bat erabili dezakezue.
- 2.- Itsatsi moztutako tiren muturrak eta jarraian itsatsi eguzki-izpiak birziklatutako CDari, alde metalikoa bistan utziz.

- 3.- Konpasa erabiliz marraztu biribil bat paper batean. Tapoi handi bat edo edalontzi txiki bat erabili dezakezue. Hori izango da eguzkiaren aurpegia.
- 4.- Itsasi biribil hori CDaren alde metalikoan eta marraztu aurpegitxo bat bertan. Nahi izanez gero, plastikozko begiak jarri ahal dizkiozue.


Puxika zeharkatu lehertu gabe

Hartu puxika bat, puztu eta egin korapiloa. Igurtzi egurrezko burruntzi bat (brotxetetarako pintxo luzea) eta puxikari korapiloa egin diozun zatia olio pixka batez busti. Zeharkatu puxika, kontu handiz. Sartu burruntzia korapiloa egindako tokian eta atera kontrako aldetik. Ez da lehertzen! Nola liteke? Puxika bat airez betetzean, bere barne tentsioa areagotu egiten da, baina hau ez da uniforme. Puxikari korapiloa egindako tokia eta haren kontrako aldea dira tentsio gutxien duten eremua, eta horregatik zeharkatu ahal izaten da puxika hortik, lehertu gabe.





LABIRINTOA



SUDOKU

				6	9	7	1	
5	8	7	1					
	6					5		
2		5	3					
9				5				6
					1	2		4
		2					4	
				2	4	6	9	3
4	8	7	9					

6	4	8	7	9	3	1	2	5
7	5	1	8	2	4	6	9	3
3	9	2	6	1	5	8	4	7
8	3	6	9	7	1	2	5	4
9	1	4	2	5	8	3	7	6
2	7	5	3	4	6	9	8	1
1	6	9	4	8	7	5	3	2
5	8	7	1	3	2	4	6	9
4	2	3	5	6	9	7	1	8

Erantzuna:



MATEMATIKA

Biderketak pentsatu

$$5312 \times 3$$




1. Zenbaki bakoitzaren azpian adierazten duen marra kantitatea egin bertikalean.

2. Biderkatzailearekin (2. zenbakia) berdina egingo dugu, baina horizontalean.

3. Gurutzatzen diren lekuetan, puntuak egingo ditugu. Gero zenbatu eta emaitza irtengo da.


$$38 \times 8$$



Eramanak

1. Emaitza bat eraman badu, 2ren zenbakia lehenengo zenbakia gehitu behar dituzu.

15 DESBERDINTASUN





5 EZBERDINTASUNAK



Bidali erantzunak **MARTXOAK 1** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkarte- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.



AURREKO ALEKO IRABAZLEA

Aupa LAURA, txapelduna! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ren motxila zuretako! ZORIONAK!

**Dorotea 6 urtetik aurrera**

Amona bakarrik eta zoriontsu bizi da basoan, bere etxea euliz betetzen den arte. Euliez nazkatuta eta haietaz libratu ezinik, etxea armiarmaz beteko du, euliak jan ditzaten. Hasiera batean irtenbide burutsua dirudien arren, laster arazo berri bihurtuko da; izan ere, nor bizi daiteke lasai armiarmaz inguratu-ta? Beraz, armiarmak jango dituen beste animalia baten bila abiatuko da.

**Barruko ahotsak eta beste soinu txiki batzuk 8 urtetik aurrera**

Liburu honek jarraipena ematen dio Piztipoemak eta beste xomorro batzuk eta Xomorropoemak eta beste piztia batzuk (Euskadi Saria 2017) liburuek haur-oesian irekitako bideari. Orduan, piztiak eta zomorroak ziren olerkien protagonistak. Honetan, inguratzen gaituzten eguneroko soinuak dira.

**Newton eta etorkizunerako bidaia 10 urtetik aurrera**

Ez al diozue inoiz zuon buruari galdetu zer gertatuko litzatejeen pertsonaia historiko ospetsuenetako bat gure garaira ekarriz gero? Vicente Bucay zientzialariak, alkate baten interes ezkutuek bultzatuta, Isaac Newton klonatzea lortu du. Isaac laborategitik atera, eta familiako beste kide bat bezala hartuko dute.

**BITXIKERIAK**

Pertsona batek hilabete iraun dezake ezer jan gabe, baina zazpi egun besterik ez ezer edan gabe.



Kilo bat ezti egiteko erle batek 4 milioi lore bisitatu behar izaten ditu.

Munduan 1.100 milioi pertsonak ez dute eskura ur edangarririk.





Alex abenturazalea

Eibarren, orain dela mila urte, Alex izeneko mutil bat bizi zen.

Alexek Uranora joan nahi zuen mineral bat lortzeko.

Lan handia egin zuen bere ametsa lortzeko eta egun batean, anezkara, lanzaderara, joateko deitu zioten.

Alexek berehala egin zuen kasu eta hara joan zen. Ailegatu zenean kohetera igo eta aireratu zen.



Espazioan zegoenean zer gertatuko zen hasi zen pentsatzen. Nolakoa izango zen bidaiak? Eta, Urano, berak imajinatzen zuen bezalakoa izango zen? Lortuko zuen minerala?

Uranora iritsi zenean pixkat ibili zen. Bost minutu oinez, lurrera begiratu eta... ezpata legendario bat aurkitu zuen!

Hartu zuenean minerala oso hurbil zegoela konturatu zen.

Bat-batean Alexek bi guardia ikusi zituen.

Orduan ezpata hartu zuen eta borroka hasi zen. Alexek ostikada bana eman zien guardiei eta minerala hartzera joan zen.

Baina, minerala ikutu zuenean alarmak jo zuela konturatu zen.

Lurrera bueltatu behar zuela pentsatu zuen.

Laster batean kohetera igo eta aireratu zen. Bidean beste kohete bat ikusi zuen Uranora bidean. Segundo bat besterik ez zen despistatu eta hara non ikusten duen koheteak eraso egiten ziola!

Alex defendatzen saiatu zen, baina kohetea ez zegoen borrokarako prestatuta. Lehenengo tiroak kohetearen kristala apurtu zion eta, bigarrenak... buruan eman zion Alexi.

Eta han hil zen Alex espazioaren erdian. Minerala han galdu zen, edo Uranora jausi zen berriro ere... Agian horregatik ari dira hainbeste espedizio espazioa konkistatu nahian. Aurkituko dute noizbait Alex eibartarraren aztarnarik?

Mikel Colmenero

ZU BAI MARGOLARI!

